

BALEIKE



205. ZENBAKIA. EURO BAT
2011ko ABENDUA

www.baleike.com

PATXI ARISTIRI ELKARRIZKETA

**Hogei urteko
kartzelaldiaz eta
borroka armatua bertan
behera uzteko ETAk
hartutako erabakiaz hitz
egin digu kartzelatik.**

ERRETRATUA: IÑAKI BEOBIDE

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



Galdona

buidiadegia

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi,

Xabier Azkue, Gurenda Serrano.

Erredakzio taldea: Xabier Aizpuru, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ariketa sana eta aberasgarria da noizean behin besteek gutaz duten iritzia entzutea, ispi-luaren aurrean jartzea. Horixe egin du *Baleikek*: zumaierrek gutaz zer pentsatzen duten jakin nahi izan dugu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza baliatuta, Aztikar enpresak azterketa soziologiko mardula egin du, ia 600 zumaier elkarrizketatuz.

Guretzat esanguratsuenak diren datuak bildu ditugu hemen, baina txostena osorik kontsulta dezakezue baleike.com webgunean. Mila esker elkarrizketetan parte hartu duzuen guztioi.

baleike.com

- 4.759 lagunek ezagutzen dute baleike.com.
- 2.824 lagunek irakurri izan dute.
- Azken astean irakurri dute 1.472 lagunek.
- Azken egunean, hau da, eguneko batez besteko sarrerak 610 herritarrena da (bat dator baleike.com-ek dituen estatistikekin).

Baleike.com inoiz irakurri izan duten herritarrei webgunearan 0 eta 10 bitarteko **balorazioa eskatuta, 7,7 da batez besteko puntuazioa**, “oso ongi”, beraz. Hauxe da erantzunen banaketa: inork ez dio ematen puntuazio eskasik (5etik beherako puntuazioa) baleike.com-i; %1,0ak “nahiko” baloratzen du; %6,0k “ongi”; %81,0k “oso ongi” (7 edo 8ko puntuazioak) eta %12,0k “bikain” (9 edo 10).

Gehiago batek erraz edo oso erraz ulertzen du webguneko euskara (%93,8). Erabil-tzaileen %4,1ak zailtasunen bat du ulertzeko, ulertzea kosta egiten zaizkienak %2,1 dira.

Baleike.com ataria plurala da inoiz irakurri izan dutenen %85arentzat. Beste %8k zalantzak ditu. Aitzitik, %7k dio aldizkari lerratua dela, alderdikoia dela.

Baleike.com noizbait irakurri edo gainbegiratu izan duten herritar ia guztiek (%93,9)

diote gustuko dutela diseinua eta maketazioa.

Baleike aldizkaria

Hamabost urtetik gorako Zumaiako **herritar ia guztiek (%93,5) ezagutzen dute Baleike aldizkaria.**

Aldizkaria ezagutzen duten **herritarren hiru laurdenek baino gehiagok (%76,8ak) noizbait irakurri edo gainbegiratu dute** Baleike aldizkaria.

- 7.276 lagunek ezagutzen dute Baleike.
- 5.578 lagunek irakurri izan dute.
- Azken alea irakurri dute 3.400 lagunek.

Adin tarte guztietara indartsu iristen da

Baleike. Ezagutu ez edo inoiz irakurri ez dutenak, gazteen artean dira gutxiak (%22,6), aldiz, helduenak gehien (%32,9). Irakurketa denborari erreparatuta, gazteak dira baita ere denbora gehien erabiltzen dutenak, dena den, gainerako adin tarteetakoek ere gertutik jarraitzen diete.

Baleike noizbait irakurri izan duten herritarrei, aldizkariaren 0 eta 10 bitarteko **balorazioa eskatuta, 7,6 da batez besteko puntuazioa**, “oso ongi” beraz. Hauxe da erantzunen banaketa: inork ez dio “suspentsorik” eman; %0,8k soilik ematen dio “nahiko” Baleikeri; %5,9k “ongi”; %81,4k “oso ongi” (7 edo 8ko puntuazioak) eta %11,8k “bikain” (9 edo 10).

Zalantzarik gabe, Baleikeren irakurleak begi onez ikusten dute aldizkaria Zumaiarentzat.

Oso ona edo ona dela irizten dutenak %97,1 gehitzen dute. Balorazio txarra egiten dutenak, berriz, ez dira %1era iristen.

Herriarentzat aldizkaria beharrezkoa den edo ez galdetzean, **gehiengoak beharrezkotzat edo oso beharrezkotzat jotzen du.** Beharrezkoa ez dela irizten dutenak %2,4 bakarrik dira.

Argitalpen honen edizioako laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



“Kirola egitea osasungarria da”

Sarean dago duela gutxitik:

<http://entrenadorpersonalesma.com/ENTRENATZAILE-PERTSONALA.php>.

Zer ote da? Egileak berak kontatzea onena.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

Zer da entrenatzaile pertsonala?

Pertsona bati entrenamendu zerbitzua eskaintzen diona da. Zerbitzu hori berak daukan premiaren araberkoa izango da: izan daiteke mantenimendua, izan daiteke errendimendua, izan daiteke lesio bat osatzeko lana, edo izan daiteke osasuna.

Zu kontratatu nahi zaituenak, nora jo behar du?

Webgunea jarri dut, eta bertan daude harremanetarako bideak. Hala ere, nahi duenarentzat, aiba telefono zenbakia: 667750206.

Deitu dizu norbaitek, eta nola hasten da zure lana?

Elkarrizketa egiten diot, datuak ematen dizkit, eta hortik hasten naiz lanean. Mediku azterketak egiteko aholkua ematen diot, eta nik zeharkako testak egiten dizkiot, bere egoera fisikoaren berri izateko. Zeharkako testak dira edozein test fisiko.



Orain gutxi ekin diozu bideari, eta zer moduzko hasiera ari zara izaten?

Gustura nago, eta bakarkako bezero batzuk dauzkat. Talde batzuk ere bai.

Ze adin bueltako bezeroak dira?

Gazte batzuk dauzkat eta helduak ere bai. Lan ezberdina ari dira egiten: batzuek mantenimendua lantzen nahi dute, beste batzuek

etorkizunean lasterketa edo proba jakinen batean atera nahi dute eta abar.

Zuri deitu ondoren, zer esaten dizute?

Denetarik dago. Bakoitzak zer landu nahi duen esaten dit, eta hortik hasten da harremana. Lehengoan, batek deitu zidan, eta esan zidan motibazioa behar duela bizikletan ibiltzeko. Ibiltzen dela, eta egiten dituela proba amateur batzuk, baina bere ustez, prestakuntza zehatza behar duela esan zidan.

Taldeak aipatu dituzu, eta surfekoekin hasi berria zara. Zer moduzko esperientzia?

Ona. Astean behin joaten naiz beraiengana, eta azaldu egiten diet zer lan egin behar duten. Bidea zehazten diet, nolabait esateko.

Zergatik jarri duzu martxan egitasmo hau?

Aspalditik neukan asmoa. Soin Hezkuntzako karrera bukatu nuenerako, buruan

“Gizartean ez dago barneratuta horrelako zerbitzuen truke ordaintzea”

neukan horrelako zerbitu egitea. Ibili naiz irakasle bezala, eskola kiroleko arduraduna ere izan naiz, unibertsitatean proiektuak egin ditut, eta beti izan dut hau buruan. Duela urte eta erdi animatu nintzen. Orduan, Zumaiako Arraun Elkartearen nengoan prestatzaile fisiko bezala. Azkenean, orain gauzatu ahal izan dut.

Zerbaitek kezkatzen al zaitu egitasmoak egin



Joseba Sesma

Jaioterria: Zumaia

Jaioturtea: 1983

Ikasketak: Soin Heziketa EHUn.

Lanbidea: Prestatzaile fisikoa. Ibili da Zarauzko errugbi eta arraun taldeetan, Lagun Onak, Urola, Beasain, Amaikak Bat eta Trintxerpe futbol taldeetan, Atletico San Sebastian igeriketako taldean eta Lasarteko judo elkartean. Orain, Portugalete arraun taldean dabil eta Zumaiako Arraun Elkartean.

dezakeen bidearen inguruan?

Gizartean ez dago barneratuta horrelako zerbitzuen truke ordaintzea. Beste hainbat gauzogatik dirua jartzea normalizat hartzen dugu, beti horrela izan delako. Nirea zerbait berritzailea da, eta jendearen jarrerak kezkatzen nau pixka bat.

Kirola omen da gaur eguneko erlijioa, Javier Elzo soziologoaren arabera. Zer dela eta halako gogoia kirola egiteko?

Modan dago. Azkenean, kirola egiteak gauza asko ateratzen dizkio pertsonari. Motibatu egiten du, ondo sentiarazten du norbera bere buruarekin, beste arazo batzuen zama arintzeko baliabidea ere bada. Azken batean, osasungarria da.

Demagun sartu dela zure webgunean bat. Eta esan dio bere buruari: “Nik ez daukat inoren premiarik nire

kirol jarduna prestatzeko”. Nola konbentzituko zenuke?

Jendeari esan behar zaio helburu bat jarri eta gauzak modu egokian egin behar direla. Adibide asko daude kontrakoak; hau da, edozein eratako entrenamenduak egiten dituztenak daude, kontuan eduki gabe berarentzat ona den edo ez. Nik ziurtatzen dut prestaketa egokia jartzen dudala. Kalitatea da, azken betean.

Beste batzuen aipuekin segituz, hau prestatzaile fisiko bati entzuna da: “Kirola egitea osasungarria da, baina errendimenduzko kirola egitea, ez”.

Egia da neurri batean. Errendimenduak norberaren mugara eramaten du kirolaria. Hor ibiltzeko karga handiko entrenamenduak egin behar dira, eta prestatzaileak karga horiek ahalik eta ondoen sartu behar ditu, osasunerako kalterik eragin ez dezaten.

“Kirola ematzetik aparte egin nahi duena ere buruan eduki dut egitasmo hau jartzean”

Atsedanak ere ondo kudeatu behar dira. Gure lana ere bada errendimenduzko kirola osasungarria izatea, ahal den neurrian behintzat.

Bakarkako eta taldeko zerbitzuak eskaintzen dituzu, eta gauza bera al da batekin landu edo taldearen ardura hartu?

Erabat ezberdina da, eta kirol batetik bestera ere sekulako aldea dago. Ibili

naiz futbolelan lanean, errugbian ere bai, eta arraunean ere bai. Taldea eramatea zailagoa da. Azken batean, taldeak ez badu lan jakinik egin nahi, zure lana non geratzen da? Lanerako borondatea edukitzea ezinbestekoa da. Futbola aldatzen ari da azken urteetan, eta ez onerako, nire ustez. Errugbian eta arraunean, aldiz, lanerako dago jendea.

Zure webgunera sartu den beste batek, demagun hau pentsatu duela: “Kirolean emaitzak eta markak lortzeko baka-rrik balio du zerbitzu zenioko?” Zer erantzungo zenuke?

Ez dela horrela. Alor hori lantzen dut, baina baita bestea ere: kirola emaitzetatik aparte egin nahi duena ere buruan eduki dut egitasmo hau jartzean. Zerbitzu guztiak eskaintzen ditut. Ez dut ukatuko errendimendua polita dela, baina bestea ere ederra da. ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



Astelehenerdik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com




ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia. Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Itelak,
frantses,
euskara,
ingelez,
espainier,
katalanier,
basque,
katala,
frantses,
ingelez,
katalan,
frantses,
katalanier,
ingelez,
basque,
katalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itakl Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basadi.clivivet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldok: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lamiakelasko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

BATELA



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4 tel. 943 860 750

Euskaldunon gorabeherak

Doinua: "Iparragirre abila dela"



1. Abenduaren 3an degu euskaldun denon eguna gure mingainak libre astinduz ospatu behar deguna gaixoa gure hizkuntza gabiltz tira ta bultza hau da gure ondasuna ikus dezagun nolakoa dan euskararen osasuna.

(euskaldun bat euskal herritik kanpo)

4. Egun batean etorri nintzen Ameriketa aldera Euskal Herrian ez zegon eta etorri nintzen lanera hemen asko sufritu azkenik egokitu baina noa esatera: ikaragarri maite nun arren galdu nun nere euskera

(euskaldun zahar bat berri euskaldun batean)

2. Nire bizitzan beti izan da hauxe hizkuntza bakarra betidanikan gure herrian izandu degun indarra ikastoletan hasiz txikitatik ikasiz euskera ipar izarra guk bezelaxe ikas dezaten maitatzen euskera zaharra

(euskaldun berri bat berri euskaldun batean)

5. Orain dezente etorria naiz bizitzera Zumaiara euskera ikasteko beharra sentitu det hemen hara! joan euskaltegira saiatu naiz ta tira eta benetan zaila da baina ezinezkorik ez dago norbera saiatzen bada

(euskaldun bat berri erdaldun batean)

3. Kalera irten ta entzuten det han ta hemen gaztelera eta hizkuntza aldatu behar det neretik beste batera dana belarri motza ze hizkuntza arrotza baina ni noa neurera ingurukoek jasan ez arren geurea defendatzera

6. Ikusi degu herririk herri gauza nola den aldatzen ikasi behar da leku guztitan geure hizkuntzaz gozatzen gorde behar degu bero jardunaz egunero ezin degu utzi galtzen bere eguna izan ez arren segi dezagun mintzatzen



**BEDUA
ITURGINTZA S.L**

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



**BEHEKO
PLAZA**

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erlorju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN
SAGARDO EKIDOLKOKA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Ekin
elektronikak, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

Enduroluz
Zumaia

Erribera, 8 tel. 943 861 694

**ERNTO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA
OPILOKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu surretan
konpromisorik gabe.
DOAN

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieteta, Naturapala, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirokintzako, Lesatzeak, Estresaren, Arduratasun, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura, homatekin eta homatik gabe

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioa tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona
burdindegia

Mondano marnela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA
Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

“BERE ARRISKU GUZTIEKIN, ERABAKI ZUZENENA HARTU DUGULAKOAN NAGO””


Borroka armatuaren amaiera iragarri zuen ETAk joan den azaroaren 20an. Garai berrien inguruan duen iritziaz eta kartzelako bizimoduaz galdetu nahi izan diogu Patxi Aristi preso zumaiarriari.

TESTUA: GORKA ZABALETA

Hogei urte daramatza Patxi Aristik (Zumaia, 1957) preso. Frantziako Angers herrian atxilotu zuten, 1991ko abenduaren 11n. Ordurako lau urte zeramatzan errefuxiatuta, 1987ko ekainean hanka egin eta gero: “Oso denbora gutxian inguruan hiru sarekada egin zituzten; hirugarrenean sei lagun eraman zituzten, eta haietatik lau Udalaitz komandoko taldekideak ziren”. Frantziako Poliziak atxilotu zuenean, epaileak bi urteko espetxe zigorra ezarri zion, “gaizkile elkarteko partaidetza” kargupean. “Kargu horri berez, zortzi eta hamabi urte arteko zigorra zegokion garai hartan... Horrek garbi adierazten du ez zutela inolako frogarik eta zigorra ezarri zigutela kartzelan egin genuen denbora justifikatzeko”.

Baina espetxealdia ez zen Fleury Merogisko kartzelan amaitu. Espainiako Entzutegi Nazionalak bere estradizioa eskatu zuen, fiskalak hiru kargu leporatuta. Patxi ez ditu karguak zehaztu nahi, “jende gehiagori eragiten diolako”, baina armak eta lehergailuak edukitzea da, funtsean, leporatu ziotena. “Inolako frogarik gabe, eta soilik zortzi urte lehenago torturapean lortutako deklarazioan oinarriturik, 37 urteko espetxe zigorra ezarri zidaten. Dena den, eta inork iheska nabilela pentsa ez dezan, militante gisa, erakundearen ekintza guztiak, okerrak zein zuzenak, neureganatzen ditut, horixe baita gure jokabidearen eta etsaiaren artekoaren berezitasun nagusienetakoa”.

Ordur geroztik, Carabanchel, Valdemoro, Cáceres, Martutene eta Topasko kartzelatan eduki dute preso, egun asko





BERTIL LAGERSTROM

eta asko erabateko isolamenduan. Hala ere, bere pentsaera, bizitza ikusteko modua, ez dela gehiegi aldatu dio. “Besteontzat bezala, neuretzat ere 20 urte pasa dira eta horrek agian heldutasun puntu bat emango zidan. Baina betiko ametsak gehi berri batzuk berotzen jarraitzen dut”. Eta bere izaerari eusteko borroka horretan, ezinbestekotzat jotzen ditu “kideen laguntza paregabea eta herritik iristen den arnas beroa”. Egindakoaz inoiz damurik izan al duen galdetuta, hona bere erantzuna: “Ez, egindako zein egin gabeaz beti ere arduratu egin naiz”.

Kartzelan daramatzen hogei urte hauetan asko dira “markatu” duten uneak: “Batzuk aipatzearren, aitaren lehen bisita eta hainbat lagunena. Etxekoen zein ingurukoen heriotzak. Kideak berriz topatzeko uneak. Neska lagunak harremana proposatu zidanekoa. Hainbat borrokaldi. Etxekoen eta ingurukoen jaiotzak, baina batez ere neska lagunak semetxo jaio berriak besotan jarri zizkidanekoak”.

Kalera irteteko data jarri diote, 2013ko abuztua, baina ez du nahi inor gehiegi esperantzazterik. “Legearen arabera, 2008ko maiatzaren 1ean zigorraren 3/4ak bete nituen, eta, beste askok bezala, baldintzapeko askatasunean egon beharko nuke. Baina gehiegi dira zigor osoa beteta ere kartzelan jarraitzen duten kideak. Beraz, planteamendu hutsak min egiten dit. Ez dut nahi inor gai honekin esperantzazterik, gauzak oker daitezkeelako eta ondoren izugarri gogorra da berriro burua altxatzea. Etxekoekin elkartzen naizenean, gure ametsak sarritan ‘ateratzen zarenean...’ esanaz hasten dira, baina beti egoera irudikatzen dute eta ez garaia. Aspaldi

“ETAk ez du izango arazorik berak eragindako sufrimenduaren aitortza egiteko”

“Preso gaixo larriak, zigor osoa beteta dutenak eta kondizionalean sartuta gaudenon kaleratzea izango da lehentasuna”

badut formula bat honetarako ere egoki datorrena: okerrenerako presta ezazu burua eta ondo irteten bada, gaitz erdi”. Hori bai, garbi du kalera irteten den egunean zer egingo duen: “Lehendabizi etxekoen beharrak betetzen saiatuko naiz, eta hortik aurrera, betiko legez behar nauenak hor aurkituko nau”.

Garai berriak

ETAk borroka armatua uzteko erabakia iragarri zuen azaroaren 20an. Ez da goizetik guera hartutako erabakia, denbora behar izan da mamitzeko. Zuk nola bizi izan duzu hausnarketa prozesu hori? Parte-hartzeko modurik izan al duzu?

Zeuk diozun bezala, gai honen eztabaida gure artean, kaletan bezala, urrunetik dator. Guk borroka armatua helburua lortzeko tresna gisa ulertu izan dugu eta ez dut inor ezagutu bizimolde hori gustukoa izan duenik. Lanabesa izanik, helburua lortzeko baliagarria izateari uzten dionean, baztertu eta berri bat sortu behar da lanean jarraitu ahal izateko. Hori bezain sinplea den hastapeneko planteamenduari 50 urteko historiaren zama gehitzen badiozu, beste dimentsio batean sartzen da. Iritziak, kezak, eta sentimenduak nahaspilatzen direnean, horrelako erabaki bat hartzea ez da bi eguneko kontua. Hori guztia kideekin partekatzea eta eztabaidatzea izan da niretzat hausnarketan parte hartzeko modua.

ETAk estrategia armatua agortutzat eman du, eta politikaren garaia dela onartu. Ezker Abertzalearen barruan ahalegin handia egin da urteetako dinamika iraultzeko. Bat egiten al duzu hartutako erabakiarekin? Zuk zeuk zer hausnarketa egin duzu?

Ekimen politikoak eta herri mugimenduak urte luzeetan berez jasan behar izan duten jazarpenari, trabeska ETAREN jarduerak eragindako errepresioa zein propaganda pairatu behar izan dute. Hala ere, ahalegin handiz gaindituz euren eginbidean jarraitzen asmatu dutenean, Estatuak, horien dinamika gelditu ezinik “dena ETA da” estrategia inposatu zuen, erakundeak legez kanpo utzi, militante andana atxilotu, torturatu eta kartzelaratu eta euren lana eragozteko. Itolarri honi buelta emateko beharra, eta borroka armatuaren egun-

“Isolamendua espetxe barruko kartzela da”

Hogei urte joan dira. Kartzela bat baino gehiago ezagutu duzu, eta denbora asko isolatuta egin duzu. Kontaktatu al diguzu nolakoa den kartzela barrutik? Nolakoa da zure ziega? Zure egunerokoa nolakoa da? Nolakoa da isolamendua?

Kartzelak, gertakizunen arabera, egunero deskribapen ezberdin bat eduki dezake, eta bada nik baino hobeto egin duenik, baina nire iritziz atal ezberdinetan azaldu beharra dago.

Sistemaren aldetik, batez ere zeure izaeraren funtsa desagaitatzen saio etengabea da. Hasieratik gupil zoro alienatzaile batean sartu nahi zaituzte, zurekiko erabaki guztiak euren esku dituztelarik. Inor edo ezer ez zarela sentiarazi nahi dizute uneco. Zure beharrak haien borondatearen arabera beteko direnez, beharrak gutxiengora murrizten dituzu, ahal den neurrian, aginduak saihestuz. Baina horrek ez zigorra dakar. Zigorpean bizitzera moldatzen zarenean, beti ere okerrago egon zaitzakeela gogoraziko dizute, eta, hala ere makurtzen ez bazara, errudun sentiarazi nahiko zaituzte zure senide eta lagunak zigortzen dituzten artean. Inoiz pazientzia galdu edo bortizki erantzuten baduzu, zaude ziur gupidarik gabe txikitu egingo zaituztela.


Kideen aldetik, aldiz, baldintzarik gabeko laguntza espazioa da kartzela. Elkartasuna, maitasuna, adiskidetzatza, babesa. Ukapenaren aurrean, bazarela eta gehien bat bagarelaren baieztapen osoa. 720 bihotzek taupada berean mamutzar honen suntsidura edo eta otzanketa plangintza, behin eta berriro porrotera eramán duen indarra.

Fisikoki berriz, geurengandik eta mundutik banatu nahi gaituen eraikin doilorra. Honen barruan, teorien espetxe egoera arruntera moldatzen ez diren presoentzat prestatutako txoko bat dago. Isolamendua espetxe barruko kartzela da. Hemen sistemaren krudeltasunak gailurra jotzen du eta kartzelarien inpunitatea erabatekoa da.

Eraikina hiru galeriak osatzen dute, eta galeria bakoitza hamar ziega eta patio batek. Ziegak lerrotakuta eta patioaren nibelean eraikita daude. Horietako bakoitza, funtsean, 4,5 metro luze, 2,20 metro zabal eta 2,30 metroko altuerako zementuzko kubo bat da. Burdinazko ate korrederak, kristalez estalitako behatxuloa eta janaria pasatzeko erabiltzen den leihatila ditu.

Barneko elementu guztiak, plastikozko aulki bat salbu, zementu, burdina edo altzairuzkoak dira, eta lurrera edota hormetara finkatuta daude. Ateetik eskuinaldeko pareta noizbait zuria izan zen, eta argazkiak eta abar edukitzeko kortxoazko paneltxo bat eduki zuen.

Ate pareko hormaren erdian, metroko altuerako eta 60 cm zabalera burdinazko leiho bat dago, kanpotik zutikako lau barrotez babestuta. Leihoaren erdia bakarrik zabalitzen duen orri bakarrekkoa da. Bertatik alboetara begiratu



BALEIKE +

ezin denez, parera begiratu lau metroa beste galeriaren patioetik bereizten gaituen horma grisa dago, txarrantzez korroatuta, eta zera behar lukeen lekuan barilazko sare batek sabaia osatzen du. Hala ere, gauzez belarria kristalera itsatsita gora begiratu gero, izarrak eta batzutan ilargia ere ikus ditzaiteke.

Leiho azpian eskuineko hormaren kontrarainoko 135x60 cmko zementuzko mahaia dugu, eta horren azpian, hormaren kontra, zulo honetako pribilejio bakarra den tubozko berogailua. Mahaiaren ertza eta ezker hormaren artean, 175x85 cmko ohea, eta ziega erdiraino irteten den gerrirainoko paretatxo batek bereizita, konketa, komuna eta dutxa, leporainoko paretak atetik banatzen duena.

Elementu horien guztien artean 4 metro luze eta metro bete zabaleko tarte librean gelditzen zaigu pasiotxoak eman eta kirol pixka bat egiteko. Han-hemenka, berriz, betiere kartzelarien miaketa sarriak errazteko mugatuta, arropa, liburuak, prentsa, aldizkariak, irratia, telebista eta garbiketarako gauzak.

Kartzela zabaldu zenetik gaur arte pintura ezagutu ez duten horma zikineta garai beretik irekita dauden pitzadurak, duela bi urte tik mila aldiz salatu arren, geure ekin-tza zuzenak beste konponketa saiorik izan ez duen laber-zomorro izurrute etengabearen kabi. Hemen eguneko 20 ordu pasatzen ditugu eta beste laurak, eguraldiak uzten digunean, 32 pausoko luzera eta 11ko zabalera duen patio huts batean.

Hala ere, ez dugu bata bestez aspertzeko astirik izaten, eta gehienetan argia itzaltzean eguneko plangintza osatzeko gelditzen zaigu. Argituko du hurrengo egunak jarraitzeko.

“Inpunitate osoz manipulatzeko dute”

Kartzelak emandako azken bi idatziak bidali dizkigu elkarrizketarekin batera, “egungo eta azken urteetako egoeraren argigarri”. Azalpen honekin lagunduta: “Espetxeetan euskal preso politikoei ezartzen zaizkien neurri bereziak berezko arrazoiengatik baino xantai edota mendeku gisa erabiltzeko baliatzen dira. Neurri horiek sistematikoki ezartzen dira, eta, horretarako, errealitatea inpunitate osoz manipulatzeko dute. Nire kasuan, komunikazioei dagokien agiriko lehen puntuak aipatzen den “hilketa” kargua ez da agertzen ez nire epaiketaren sumarioan, ez eta sententzian ere. Kartzelaldiaren graduari dagokion idatzian, berriz, ez da zehazten lehen gradua aplikatzeko arrazoiak”.

go eraginkortasunarekiko hausnarketa izan dira, nire ustez, puntu honetara ekarri gaituzten arrazoi nagusiak, eta bere arrisku guztiekin erabaki zuzenena hartu dugulakoan nago.

ETAren barruan haustura arriskurik ikusten al duzu?

Lehen esan bezala, prozesuak bere denbora behar izan du, arduraz eta heldutasunez une kritikoak gainditzen joan da. Erabaki hau hartu da eta ez, ez dut ikusten haustura arriskurik. Aldiz, ziur naiz Estatuak ibilbide berria oztopatu eta zapuzteko ohiko trikimailuekin batera, guda zikina barne, errepresio armatua erabiltzen jarraituko duela.

Abertzaleen indar metaketa da aurrera begira helburu politikoak gauzatzeko planteatu den estrategia nagusia. Lizarra-Garaziko saioaren ondoren, abertzale askoren iritziz, ETAren indarkeria izan da bide horretan urratsak egiteko oztopo nagusia. Horrek eragina izan al du ETAren erabakian?

Lehen ere, Ezker Abertzalearen baitan Xibertatik Lizarra-Garazira, handik 2004ko Bergarako proposamenera, eta azkenik Amaiurren sorrera arte ibilbide luzea egindako asmoa da. Bada buruzagirik aipatutako lehenengo bi saioetan parte hartu ostean haien porrotaren erru osoa ETARI leporatu, eta kargua utzi ondoren “agian gauzak beste era batera egin behar izan zirela” publikoki adierazi duena.

ETAk Xibertan frankismoarekiko haustura eta Euskal Herriaren aldeko KAS alternatiba proposatu zituen, eta alderdi eta mugimendu abertzaleen arteko indar metaketaren alde borroka armatua uzteko eskaintza egin zuen. Lizarra-Garazin alderdi interesek herri interesak gainditu zituen arteko su-etena mantendu zuen. 2004ko Bergarako proposamenean Madrilera batera joate aldera indarkeria oztopo izan ez zedin hartu beharreko neurriak hartzera eskaini zen eta, hala ere, proposamena ez zen gauzatu.

**CENTRO PENITENCIARIO
DE TOPAS (MALLORCA)**

**ASUNTO: ACUERDO DE PRORROGA DE INTERVENCIÓN
DE COMUNICACIONES.**

La conformidad con lo previsto en los arts. 611 y 612 de la L.O.P. y 412, 432 y 483 del vigente Reglamento Penitenciario, esta Dirección acuerda prorrogar la intervención en comunicaciones personal con abogados defensores a expresamente llamados en relación con asuntos penales y con representantes de los familiares, y demás naturales acogidos en la ley, del

INTERNO/A **JOSE MANUEL ARISTI ECHAIDE**

El mismo se erige fundamento en razones de orden y seguridad del Penitenciario

Las razones de seguridad y orden se concretan en:

1ª La capacidad técnica y profesional del interno, tanto en las técnicas de escape y ocultación y otros delitos por los que está cumpliendo condena.

2ª La representación del sistema a la organización penitenciaria E.T.A. según consta en el expediente de condena, así que existen signos inequívocos de abstracción de fines y medios, ni existen signos de periodo a las víctimas ni colaboración con las autoridades.

3ª La posibilidad de que a través de las comunicaciones que realiza se transmita datos o noticias que puedan poner en peligro la seguridad del Establecimiento, sus trabajadores u otros penales, o que impliquen la organización y planificación de nuevos delitos.

El presente acuerdo de prórroga de intervención de comunicaciones tendrá una duración temporal de seis meses.

Contra el presente acuerdo se ejerce el derecho de acudir en queja al JUZGADO CENTRAL DE VIGILANCIA PENITENCIARIA de acuerdo con lo establecido en el artículo 462 apartado 4 de la L.O.P.

Mallorca 25 de Noviembre de 2011

LA DIRECTORA

Bakoitzak bere azterketa egin dezala, baina gaur arte erraza izan da herri eskubideen aldeko norberaren konpromiso falta ETAren indarkeriaren aitzakiarekin estaltzea, baina amaitu dira kontuak eta lana guztiontzat dago.

Nola baloratzen duzu Eusko Alkartasunak prozesu honetan izan duen papera?

Gose greba baten ondorioz erietxean nintzela bisitan etorri zitzaizkidan herritarren artean, bat honela aurkeztu zitzaidan: “Ni EAKoa nauk, baina beti egon nauk presoan alde”. Moduak harritu ninduen, baina berehala jabetu nintzen aurkezpen haren esanahi osoaz. Ez dakit berak honela interpretatuko zuen, baina nire besarkadarekin “segi lanean eta aurkituko gaituk” adierazi nahi izan nion. Lizarra-Garazi hausteko zorian zen. Tantak pixkanaka itsasoa sortzen joan ziren, EAK erabaki ausarta hartu zuen 2005eko hauteskundearen harira, “eserlekuak mantendu eta arima galdu”, edota “kale gorrian gelditzeko arriskua hartuz sustraira itzuli” aukeren artean bigarrena hautatu zuenean. Esatetik izaterako bidean, azken zorriak astindu ditu eta naturala bezain aberasgarria izan den indar metaketa proiektuan eskuzabal ari da.

Presoen etorkizuna da orain mahai gainean dagoen gai nagusietako bat. Zuk zeuk, preso zauden neurrian, nola ikusten duzu gaia?

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa betiko aldarrikapenak egoera berrira birmoldatzen eta prozesuari eragile politiko gisa erabateko bultzada emateko prestatzen ari da, horretarako beharrezkoak diren baldintzak eskuratzeko borroka prestatzen duen artean.

Autodeterminazioa eta amnistia lortzeko bidean, lehentasuna gure eskubideen errespetua eskuratzeko izango da, eta horien artean premiazkoenak mendeku edota txantai gisa erabiltzen jarraitzen dituzten muturreko egoeren konponketa. Preso gaixo larriak, zigor osoa beteta dutenak eta kondi-



“Muturreko ugari jasoia izan arren, jendearengan sinesten jarraitzen dut”

zionalen sartuta gaudenon kaleratzea izango da lehentasuna hartuko duen eskaera.

Prozesuan gure parte hartzea ahalbidetzeko, berriz, ezinbestekoa da estatus politikoa lortzea eta Euskal Herrian batzea. Ondotxo dakigu, ordea, eskatze hutsa ez dela nahikoa izango ezer lortzeko; beraz, orain arteko borroka iraunkorrari bultzada berri bat emateko prestatzen ari gara. Dena emanda ere, eskaerak lortzeko kostatuko zaigunez, betiko antzera herritarroi dei egiten dizuegu, gurekin batera borroka honetan parte har dezazuen.

Indarkeriaren biktimena da heldu beharreko beste gai bat. EPPK-k sinatutako Gernikako Akordioak honela dio: “Aitortza, adiskidetzeta eta erreparazioa gatazka politikoak eta jatorri guztietako bortizkeriek eragindako biktima orori”. ETARI dagokionez, nola erantzun beharko luke berak eragin dituen biktimen aurrean?

Biktimen gaiarekin nahasketa eta erabilpen handia dago. Antzeko prozesuetan unea iristean naturalki heldu eta jorratu den gaia hemen txantai gisa erabili, baldintza gisa ipini, politikoki baliatu eta egoera bortxatu nahian erabili izan da, berez behar lukeen errespetuzko tratamendua desitxuratuz. Sufirimendua geure larruan pairatzen jarraitzen dugunok gutxienez besteena ere errespetatzen dugu, eta ETak ez du

▲ MOBILIZAZIOAK

Presoen euskal herriratzea eskatzeko hainbat ekitaldi egin dira Euskal Herrian azken asteotan, “Egin dezagun bidea” ekimenaren baitan. Zumaian, esate baterako, argazki hau atera zen Itzurunen, abenduaren 10ean.

izango arazorik berak eragindakoaren aitortza egiteko. Eran-tzuteko era aztertu egin beharko du, baina ziur naiz betiko antzera gai mingarri honi ere adarretatik helduko diola.

Indarkeriak zauri sakonak utzi ditu euskal gizartean, min handia eragin du: hildakoak, bahiketak, mehatxuak, presoek eta haien senideek pairatutako neurri zanpatzaileak, alderdien legez kanporatzeak, komunikabideak itxi dira, ideien jazarpena... Ez al da zama astunegia izango etorkizuna bakean eta askatasunean eraikitzeko?

Begira, munduan izan diren eta diren gatazka guztiak kontuan hartuta, konponketa aukerarik izan ez balitz gizon-emakumeak aspaldi desagertuak ginatke. Muturreko ugari jasoia izan arren, jendearengan sinesten jarraitzen dut eta batzuetan horretan jarraitzeko arrazoiak azaltzen zaizkit. Due-la hilabete batzuk, oraindik gaurko egoera usaindu ere egiten ez zenean, gure indarkeriak zuzenean kolpatu eta ia burua galtzeraino sufritu duen pertsona batek, beste harremanik izan gabe, gure amari lore sorta bat eskaini zion. Pertsona horrek sufritzen jarraitzen du eta ezerk ez du bere hutsu-nea guztiz beteko, baina bere bihotza sendatzen hasi den momentuan lehen urratsa eman eta keinu xume horrekin konponketarako borondatea azaldu dit. Lerro hauen bitartez zera esan nahi diot: jaso dut mezua, baita biziki estimatu ere, eta ahal dudanean, zu prest bazaude, handikeriarik gabe, elkar hartuta erakutsiko dugu ez dagoela eraman ezinezko zama astunegirik etorkizuna bakean eta askatasunean eraikitzeko. ■



GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Cure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatuzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

del CAPI

Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

Idoia
Moda Lenda
Andergaitetan espezializatutarik

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
idoiazumai@gmail.com

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERTATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baso, auzategia, 10 tel. 943 861 853

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

KABI Patala Etxezarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaittermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari




Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

KANTAURI
TABERNA

Pinxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

DUELA MILIOIKA URTEKO ARRASTO MISTERIOTSUAK



TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA, ALGORRI I.Z. ETA ALDUNDIA

Gure kostaldeko labarren garrantziaz askotan entzun eta irakurri dugu azken urteotan. Lurraren historia jasotzen duen harrizko liburua dela ikasi dugu, iraganean gertatutako desagertze handien berri jasotzen dela bere orrialdeetan. Baina beste hamaika istorio harrigarri ere gordetzen ditu. Horietako batzuk duela milioika urte itsas hondoon bizitako izaki misterioetsuen gainekoak dira. Haitzek ez dute, tamalez, izaki haien gorpuzkinik gorde; bai, ordea, detektiberik onenen jakituria eta imajinazioa dantzan jarri dituzten arrastoak: iknofosilak.

Saerichnites abruptus

Misterioz inguratutako arrastoa da. Izaki ezezagun hark galeriak zabaldu zituen itsas hondooan, eta tarteka tximini bertikal moduko bat ateratzen zuen. Ez dakigu nork egin zuen, ez eta zertarako ere. Zumaiaiko abruptusa munduan bakarra da. Orain arte aurkitutako aleak hiru aldiz txikiagoak ziren –Zumaiakoa 153 cm luze da–, eta garai zaharragoak: Zumaiakoa duela 49 milioi urtekoa da, oso berria aurrekoekin alderatuta, zaharrenak duela 400 milioi urtekoak baitira.

Iknofosila Itzuruntxikiko labarrean zegoen, baina bertatik ateratzea erabaki zuten adituek, hausteko arrisku biziaren zegoelako. Gaur egun Algorri Interpretazio Zentroan ikus daiteke.



Chondrites

Itxura adarkatua eta trazatu konplexua duen lorratza da. Alga baten irudia gogorarazten du. Elikadura-galeria txikiez osatuta dago eta fobotaxia (izakiak ez du sekula aurrez zabaldutako galeria erabiltzen, beti berria behar du) bizia erakusten du. Ondorioz, adarkatze bat ez da bestearekin gurutzatzen. Izaki bateak egindako indusketa baten aztarna dela interpretatzen da.



Rotundusichnium (Scolicia zumayensis)

Eraztun kontzentrikoez osatutako aztarna da eta Zumaiaiko herriaren izena darama. Aztarna honen jatorria interpretatzea zaila da. Zientzialari askoren arreta piztu izan du. Hain da enigmatikoa!.

Iknofosilen bilduma



Cosmorhaphe sinuosa

Espageti itxurako arrastoa, bihurtune formako trazaduraz osatua. Itsas hondoan narrasean mugitzen zen eta buztin organikoaz elikatzen zen anelidoren (zizare) batek utzitako arrastoa dela interpretatzen da.



Iknofosilen bilduma

Spirorhaphé

Espiral itxurako lorratza. Bizidunak, ziur aski anelidoren (zizare) batek, elikatzeke itsas hondoko sedimentua zulatu zuen mugimendu espiral bat eginaz.



Helminthorhaphé

Labirinto itxurako arrastoa da. Sedimentuak janaz elikatzen zen har edo zizareak batek eratutakoa dela pentsatzen da.



Palaeodictyon

Sare hexagonalez eratutako arrastoa da, eta erlauntzaren morfologia gogorazten du. Trazatuaren forma oso berezia eta enigmatikoa da eta oraindik ez da interpretatu zein organismok eratu duen. Aditu batzuen arabera, organismo misteriosu honek elikagaiak harrapatzeko edo bakterioak hazteko itsas hondoa egingo lituzkeen tranpak edo zuloak izan litezke.

Zumaian agertzen diren Paleodictyon aztarnaren antzeko egiturak topatu dira gaur egungo itsaso sakonetan, 3000 m-ko sakoneran. Beraz, esan daiteke Zumaikoa laborategi handi bat bezalakoa dela, aztarna fosilek gaur egungo itsaso sakonetan bizi diren organismo ezezagunei buruzko informazio baliagarria ematen baitigute.



◀▶ BILDUMA

Algorriko iknofosilen eta fosilen bilduma osatzeko bilketa lan handia egin duten azken urtean Ainara García eta Jesus Mari Narvaez geologoek. Hemen aipatu ditugunak bilduma osoaren zati bat baino ez dira.



► IKERLARIAK

Iknofosilez josita daude labarretako hormak, eta horrek mundu osoko ikerlariak erakarri ditu joan den mendearen hasieratik. Juan Carlos Gutierrez paleontologoa da gaur egun gure kostaldeko iknofosilak ondoen ezagutzen dituenetako bat.



Ez dira izaki fosilduak; izaki haien portaera da fosilizatu dena. Mugitzeko edo jateko erabiltzen zituzten estrategien salatari dira arrastook”. Juan Carlos Gutierrez paleontologo ospetsuak ederki ezagutzen ditu Zumaiaiko labarretan agertutako “iraganaren markak”. “Askotan goraiatu da Zumaiaiko labarrek geologian duten mundu mailako garrantzia; bada, iknologia ez dira gutxiago. Esan genezake iknologia Zumaian sortu zela, hemen egin zirela lehen ikerketak, eta Zumaiaiko iknofosilak mundu osoko bildumetan daudela”.

Zergatik dira hain garrantzitsuak?

Zoritzarrez, iknofosil gehienek egileak erabat ezezagunak zaizkie zientzialarietara. “Gorputz biguneko izakiak ziren eta, beraz, fosilik ez zaigu iritsi”. Baina arrasto hauek oso garrantzitsuak dira itsaso sakoneko bizitzari buruz gehiago jakiteko. “Sakonera handiko itsas hondooz ezer gutxi dakigu, esploratzeko gelditzen zaigun azken muga dela esan genezake, eremu ezezagunena”, dio Gutierrezek. “Bitxieta da duela ehunka milioi urte sortutako iknofosiletan aurkitu ditugun marrazkietako asko gaur egunean ere aurki ditzakegula milaka metroko sakonerako itsas hondooan; izaki haien oinordekoek bizirik jarraitzen dutela, alegia. Horrek esan nahi du sakonera handiko itsas hondooa babesleku izan dela bizitzarentzat, baldintzak ez direla apenas aldatu lurrazalean desagertze handiak gertatu diren garaietan ere, eta, horregatik, espezieak ez direla ia aldatu. Eboluzioa erabat moteldu da”.

Zientzialariak milaka metroko sakoneran murgildu diren apurretan saiatu dira izaki misteriotsu hauei “aurpegia” jartzeko, baina gehienetan kale egin dutela aitortu du Gutierrezek. “Batiskafo modernoetara esker arrasto freskoak topatu bai, laginak bildu ere bai, baina izakirik ez. Misterioak argitu gabe jarraitzen du”.

“Sakonera handiko itsas hondooa babesleku izan da bizitzarentzat, eboluzioa erabat moteldu da”

Bilduma osatzeko lanak

Zumaia eta Deba arteko labarrak oso aberatsak dira iknofosiletan, baina gaur egun arte bildutako ale gehienak kanpoko bildumetan daude gordetik. Gabezia ikusirik, fosilen bilduma osatzea erabaki zuen Algorri Interpretazio Zentroak. Zentroko geologo Ainara Garcia eta Jesus Mari Narvaez arduratu dira biltzeaz. “Nahiko penagarria iruditu zitzaigun azalpenak emateko kanpoko fosilak erabili behar izatea”, azaldu du Garcia. Biotopo Babestuan fosilak biltzea debekatua dago berez, baina baimena eskatu zuten helburu zientifikoekin egindako laginketa zelako. Baimena eskuratuta, lan handia egin dute harraldean atzera eta aurrera, ale adierazgarrien bila. “Fosilak labarretatik askatutako eta itsasaldien eraginez desagertzeko zorian egon diren blokeetatik jaso ditugu, eta GPSaren laguntzarekin zehaztu dugu kokapena, adina gutxi gorabehera zehaztu ahal izateko”.

Flyscheko arroketan Kretazeoa eta Eozenoa (hau da, duela 100 eta 50 milioi urte) bitartean itsas hondooan bizi ziren organismoen aztarnak gelditu dira kontserbatuta, batez ere mikrofosilak. Makrofosilen artean, tamaina eta forma ezberdinetako hainbat organismoen oskol zatiak eta osoak aurkitu dira: amoniteak, inozeramidoak eta ekinidoak, besteak beste. Baina zalantzarik gabe, nabarmentzekoak dira, kopurua eta aniztasuna kontuan hartuta, Zumaia eta Deba artean agertzen diren aztarna-fosilak edo iknofosilak. ■



Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lantzzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitarteoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium

ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

✓ Eguneko menua.

✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA

tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatebxa

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitarteoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.

TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabelko garabi zerbitzua

836 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurstrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 631



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltsotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

"BARNE ANTOLAKETA HOBETZEN LAGUNDU DIGU ETA HORREK ERAGINA DU ESKAINTZEN DUGUN ZERBITZUAN"



Erkidegoan 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Horietako bat da Zumaiako Turismo Bulegoa. Etengabeko hobekuntzaren bidetik, bezeroei ahalik ere zerbitzu onena ematen saiatzen dira. Esti Irureta eta Jone Esnal turismo teknikariek azaldu dizkigute Q ziurtagiriaren nondik norakoak.

Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak? Turismo bulegoan eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetzea eta inguruko turismo eragileentzat eredu izatea. Eta, horrekin batera, eskualdearentzat nahi dugun kalitatezko turismoaren eredia indartzen laguntzea.

Ze abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?

Prestigioa eta kalitatearen bermea da kanpotik ikusten dena, baina abantaila gehiago ekarri dizkio gure barne kudeaketari, gure arteko komunikazioari. Barne antolaketak hobetzen lagundu digu eta horrek eragina du eskaintzen dugun zerbitzuan.

Ezarpeneren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?

Batetik, langileen arteko komunikazioa hobetu da. Bestetik, hainbat kontrol eramateko erreminta berriak landu eta txertatu ditugu. Informazioaren kudeaketa ere asko hobetu da, eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Bezeroaren asebetetze-maila neurtzen lagunduko diguten inkestak ere ezarri dira. Oso informazio baliagarria da, zerbitzua hobetzen eta berrikuntzak egiten laguntzen digulako.

Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Kexen jarraipena egiteak kalitatearen pertzepzioa sortzen du bezeroengan. Horrez gain, informazioa ondo kudeatzeak ere informazio zehatza eta zerbitzu ona ematea ahalbidetzen du, eta hori bezeroak antzeman egiten du.

Zer esango zenieke turismo arloko profesionaleri Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezen?

Beti esaten dieguna zera da: hasieran prozesuak lan handia suposatzen badu ere, epe motzean abantailak ikusten direla eta pena merezi duela, dudarik gabe. Denak animatzen ditugu.

Beste enpresari batzuei kalitate sistema ziurtagiriarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Bai, dudarik gabe. Baina zertifikazio edo sistema egokia aukeratzea gomendatzen diegu beraien beharrei eta egiturari egokituia.

Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Bai, noski. Q ziurtagiriak kalitatezko kudeake-

ta bermatzen du, urtero auditoriak pasatzen direlako eta honek jarraipen bat egitera, etengabeko hobekuntza plan bat landu eta burutzerara behartzen duelako.

Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Etengabe kontrolak egitea eskatzen duenez, prozesu guztien jarraipena eskatzen du eta errazagoa da erabakiak hartzea eta ondorioak ateratzea. Horrez gain, kontrol horiek aurreikuspenak egitea ahalbidetzen dute eta akatsak gutxitzeko aukera ematen dute. Gainera bezeroen iritziak jasoz akatsak zuzendu eta hobekuntzarako ideia jasotzea ahalbidetzen du, etengabeko hobekuntza deitzen den horren oinarria, alegia. Berrikuntzak sartzeko aitzakia ere izaten da askotan hobekuntza behar hori.

Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatuko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?

Denen partehartzea ezinbestekoa da, bestela ez du funtzionatzen. Nahigabe komunikazioa hobetzen da eta azken finean zerbitzu hobe ematen da.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- ✓ **Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresarioen "profesionalizazioa" eta jomuga-konziencia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.
- ✓ **Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.
- ✓ **EFQM Bikaintasun eredia:** erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**Jarri Kalitate Turistikoaren
Q ziurtagiria zure
establezimenduan!**



CALIDAD TURISTICA

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Induslariak, A1 - 4, pab. 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazal@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



La Primavera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kudilloak)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoak,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda erribera, 1
tel. 943 861 180

Lorazaintza
tel. 943 860 778
655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Erakuntzen akabera eta dekorazioak
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Aste, zokalo, tarima eta persianak
*Amairu enpatratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



UZKUDUN
taberna-jatetxea

Gosariak-Pintxoak-Kazueltak-Eguneko menua-Asteburuko menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errazioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



Xanti
ALTZARIAK S.L.

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

Zumaian sortua, eta gaztetatik Donostiara joana, euskarazko kultur jarduna sortzeko lan handia egindakoa da. Antzerkigintza, musika, liburuak eta beste hainbat arlo jorratu du. Euskal Tebistaren sorreran ere parte hartu zuen, eta lan horren guztiaren eskerretan eman berri diote Argizaiola saria aurtengo Durangoko Azokan.



DISKO ETA ARGITALPEN IRUDIAK: BADOK.INFO

EKIN ETA JARRAI, HERRIAREN GOGOIA BETEZ

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

“60ko hamarkada ederra izan zen”, esaten du behin eta berriz Iñaki Beobidek (Zumaia, 1934). Euskal kulturarentzat aro oparoa izan zen sorkuntzan, Francoren diktaduraren oztopoa oztopo. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lurdes Iriondo eta beste hainbat musikagintzan, Ez dok Amairuren gerizpean; antzerki emanaldiak leku askotan, eta tartean, Jarrai Euskal Antzerki Taldea lanak taularatzen. Bi jardun horien atzean aritu zen zumaiarra, “tira eta tira, ausardiaz, ekin eta ekin”. Artistei bitartekoak ematen zizkien, beren sormena garatzeko. Antzerkigintzan, Jarrai sortu zuen, eta bertako zuzendari izan zen. Musikagintzan, Herri Gogoa diskoetxea sortu zuen, eta makina bat ardura eta lan egin zituen bertan.

Ezkutuko lana egin zuen, jendearen aurrean azaltzen ez den hori egiteagatik, batetik, eta garai haiekin ondo baino hobeto uztartzen delako ezkutuan ibiltzearena, bestetik. Ofizioz mekanikoa zen, baina beste bide bat hartu zuen Donostiara joan zenean. Hasiera ba-

tean, lantegiko lanarekin uztartzen zuen euskal kulturaren sormeneko zeregina, baina berehala murgildu zen bigarren arlo horretan bakarrik. “Donostian euskara ez sumatzea gogorra egin zitzaidan”, gogoratu du. Antzerkigintzari heldu zion: “8-10 bat lagun elkartu ginen, eta antzerki irakurriak egiten genituen Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Antzerki motzak izaten ziren”.

Gerora, beste zerbait jorratu behar zela erabaki zuten: “Geure gustuko zerbait egiteko gogoa piztu zitzaigun, eta atzerriko antzerkigileen lanak euskaratu eta haiek taularatzen hasi ginen: Tennessee Williams eta Arthur Millerrenak antzeztu genituen, besteak beste”. Hamar urtez aritu ziren ildo hori jorratzen, baina euskal egileen lanak ere erabiltzen zituzten: “Ez genituen ahaztuak Telesforo Monzon eta Gabriel Aresti, esate baterako”. Jarrai izena hamar urte lehenago jarri zioten taldeari. 1959a zen, eta Euskaltzaindiak lehiaketa antolatu zuen. Aurkeztu zen taldea, baina ezinbestekoa zen izena edukitzea: “Euskal-

“Euskal kulturak laguntza behar du eta hori ezin da ukatu. Jaurlaritza honekin gauzak galtzen ari gara”

tzaindia beraren ‘Ekin eta Jarrai’ leloa ezaguna genuen, eta ‘Ekin’ jartzea erabaki genuen. Baina Bilbon izen bereko talde bat sortua zen politikan, gerora ETA izango zena, hain justu. Orduan, Jarrai jartzea erabaki genuen”.

Entseguak egiteko, Urbieta kaleko Aurrera jatetxean bitzen ziren: “Aizpea Goenaga aktorearen gurasoena zen, eta bodegan uzten ziguten lekua”. Hantxe landu zituzten makina bat obra. Batzuk gogora ekartzearen, hauek: *Motza berrian* (Jose Artola), *Kristalezko iruditxoak*



▲ EZ DOK AMAIUREN DISKOAK

Beobideren ekimenez sortu zen Herri Gogoa diskoetxea, eta hari esker argitaratu ziren Ez dok Amairuko hainbat kideren diskoak.

(Tennessee Williams), *Nor alkate* (Pierres Larzabal), *Andere etxea* (H. Ibsen), eta *Denon nere semeak* (Arthur Miller). Atzerriko lanen itzulpena egiteko apai-zengana jotzen zuen: “Seminarioetan asko zeuden, eta euskara lantzeko lanera emanak zeuden haietako zenbait. Besteak beste, Julian Lekuonak eta Juan Antonio Letamendiak itzuli zizkiguten”.

Antzerki taldearen baitan, hainbat lan egin zuen zumaiarrak: “Zuzendari izateaz gain, koordinatzaile lanak egiten nituen, kopiak egiteko ardura neukan, eta entseguak ere antolatzen nituen”. Lan handia zeukan dena kudeatzen, hamabost edo hogeit laguneko taldea osatzen zutelako azken batean. Euskal Herri osoan barrena ibili ziren lanak antzeztzen, eta obra batzuk hogeit aldiz eman zituzten. Lan handi hori guztia egin eta gero, bere jarduna amaitutzat eman zuen Jarrai taldeak: “Politikako kontuak sartzzen hasi ziren taldearen baitan, 60ko hamarkadaren bukaera eta 70eko hasiera gogorak izan baitziren, eta utzi egin nuen”. Taldea ere desegin egin zen. Baina berehala segitu zuen euskarazko sormena bultzatzeko beste zeregin batzuetan.

Musikagintzako urteak

“60ko hamarkadako urteak oso praktikoa izan ziren guretzat. Gauza asko zegoen egiteko. Urte zoragarriak izan ziren alde horretatik”. Eta musikan murgildu zen. “Ezagutzen nituen Ez dok Amairuko kide batzuk. Mikel Laboa, esate baterako, bizilaguna nuen, Narrika kalean bizi ginelako biok, Donostian, eta askotan aritzen ginenean hizketan”.

Musikari haien lana honela gogoratzen du: “Edozein leku gainezka egoten zen beraiei entzuteko. Gitarra hartu, eta horrekin bakarrik jendea txoratzen egoten zen”. Mugimendua zabaltzen eta sustraitzen joan zen heinean, eskararak ere ugaritu egin zituzten: “Kontzertuak emateko antzokiak behar zituztela esaten zuten”. Zabalkunde horretan egundoko garrantzia izan zuen diskoetxe baten sorrerak: Herri Gogoia zuen izena, eta 1967an hasi zen lanean. Sorzaila Beobide izan zen. “150-200 bat



“Herri Gogoia diskoetxea inoiz ez da existitu ofizialki, baimenik ez genuelako jaso gure lanerako”

lagunek dirua jarri zuten, eta han hasi zen dena”. Lehen diskoak grabatzeko, Urnietan estudio bat apailatu zuten, saletarren ikastetxeko antzokian, eta Bartzelonan alokatutako tresnak erabili zituzten. “Aurreko urteetan grabatu ziren lan batzuk Euskal Herrian, Iparraldean gehienak, Goiztiri diskoetxean; tartean, Mikel Laboaren *Azken* izeneko 1964an”.

Baina Herri Gogoia izan zen funtsezkoa euskal kantagintzaren garapenean. Euskal Herrian bertan eduki zuten kantariak diskoak grabatzeko aukera, kanpora atera gabe: “Ordura arte, Madriler eta Bartzelonara joan behar izaten zuten, eta gastu handia izaten zen beraientzat”. Horrela sortu zuen diskoetxea, eta berehala hasi ziren grabazioak egiten Ez dok Amairuko kideak. Ordurako utzia zeukan lantegiko lana Beobidek, eta buru-belarri murgildu zen diskoetxean. Produkzio lanak egiten zituen, gauzak koordinatu eta halakoak, baina teknikari lanak ere egin zituen: “Hamalau urtez egon nin-

tzen mahaiaren atzean eserita, diskoak grabatu eta grabatu. Autodidakta izan nintzen”. Herri Gogoia sortu eta urte batzuetara, estudio propioa edukitzea lortu zuen diskoetxeak: “Paco Miangolarra bizkaitarra Donostian bizi zen, eta dirua egina zeukan Ameriketara. Gros auzoan erosi zuen etxe bat, eta han jarri grabazio estudioa, berak erositako tresnekin”. Euskal Herriko lehen grabazio estudioa izan zen hura.

Diskoetxearen inguruan, bada bixikeria bat: “Inoiz ez da existitu ofizialki, baimenik ez genuelako jaso gure lanerako. Eskatu genion baime-na Madrileko Informacion y Turismo ministerioari. Fraga Iribarne zen buru, eta gaur oraindik ez dugu erantzunik jaso”. Existitu ez arren, Herri Gogoia izena azaltzen da diskoetan. “Jolas antzeko bat egin genuen lanean segitu ahal izateko. Mikel Laboak lagunak zeuzkan Bartzelonan, eta bertako kantariak ere ezagutzen zituen. Hango burgesek diruz laguntzen zieten katalanez kantatzeagatik, eta diskoetxe bat sortu zuten: Ediciones Generales SA, Edigsa. Haiekin harremanetan jarri, eta berehala egin genuen tratua. Guri zentsuratzen zizkiguten lanak haien bitartez aterako genituen. Haiei dena uzten zieten, eta guri ezer ez”.

“Diskoetxeak ez zuen inoiz enplegatu bat bera ere eduki. Nomina bat ere ez zen egon han. Baina handik bizi nintzen. Nola? Diskoen salmentagatik halako eskusiba neukan, eta hortik ateratzen nuen bizimodua aurrera”. Denezik egiten zuen: “Goizetan almazenean

egoten nintzen, inprentetan ere ibiltzen nintzen bueltaka, eta arratsaldean estudioan sartzen nintzen, grabazioak egiteko”. Grabazioen artean, dena zen euskal musika, baina ate berriak jotzeko ausardia ere izan zuen: “Akelarre ize-neko sorta atera genuen. Diskoteketan sartu nahi genuen muturra, eta Mian-golarren bitartez, Amerikako Estatu Batuetako musikari bati eskatu genion

euskal kanten bertsioak egiteko. Gauza bitxia izan zen, eta halako bitxikeriak ere egiten genituen”. Halakoen artean sar daiteke beste hau ere: “Nik neuk egin nuen. Sintetizadore bat hartu, eta euskal musika sartu nion”.

Denetarik jorratu zuten diskoetxean, eta kantariez gain, bertsolariei ere lekua egin zieten, esate baterako. Haurrentzako ipuinak ere grabatu zituzten.

Liburuak eta telebista

Liburugintzan ere aritua da. Irakur Sail bilduma sortu zuen Herri Gogoaren baitan, 1970ean. “Euskarazko libururik ez zegoen apenas, eta zerbait egin beharra zegoen”. Zazpi ale atera zituzten, tartean itzulpenak; *Printze Txikia* zegoen itzultako lanen artean, Sant-Exuperyrena. Baina Beobidek bat du bereziki gogoan: “Asterixen hamar

“Zumaian denok hitz egiten genuen euskaraz”

1934an jaio zen Iñaki Beobide. “San Telmo kalekoa naiz, Txonpe etxekoa”. Lau senide ziren etxean: “Bi neska eta bi mutil”. 21 urte bete arte bizi izan zen herrian, soldaduskatik etorri zenean joan baitzen Donostiara: “Arrebak eta ama hara joanak ziren, eta ni ere beraiengana batu nintzen”. Aurretik, ordea, makina bat egun igaro zituen jaioterrian.

Ume garaiak gogoan, ez ditu ahaztekoak: “Egun osoa kaleran egoten ginen. Eskolatik atera, eta kalera. Orduan ez zegoen besterik, baina gaurko ume batentzat ez da hain erraza beti jolasean ibiltzea”. Nahi beste leku izaten zuten jolaserako, eta horri lotuta, Arranplako inguruarekin zer gertatzen zitzaien kontatu du: “Karmengo Ama Birjinaren egunaren aurretik ez ziguten uzten bainatzen, urak bedeinkatu gabe zeudelako. Baina gu bainatzen ginen, ezkutuan”. Itzurun aldera ere jotzen zuten, baina gutxixeagotan. “Arranplan ikasi genuen igerian”. Gazte garaian, berriz, Erribera kalea zuten zeregin askotarako leku: “Buelta eta buelta ibiltzen ginen”.

Eskolara mojetan hasi zen, “eta han euskara non zen arrastorik ere ez”. Gerora, mertzedarioetan segitu zuen ikasten, eta “han ere euskararen arrastorik ez”. Baina kalean bai, kalean euskaraz hitz egiten zuten: “Denok euskaraz aritzen ginen, kalean eta etxean. Neure buruari galdeetzen diot oraindik gure amak ba ote zekien gaztelaniaz”. Iñaki jaio eta bi urtera piztu zen gerra, baina ez zuen asko nabaritu, umea zelako. Hala ere gogoan du ez zirela garai errazak: “Aginte gehiegi zeukaten batzuek, eta horixe zen txarrena. Alondegian gordetzen zituzten etxeetatik hartutako oheak, eta esaten zuten frontierako ari zirela biltzen, baina beraien frontierako izango zen! Ez harritu beren artean banatzen bazituzten!”. Gerra ondorenean euskaraz hitz egiteko debekua nola pairatu zuten galdetuta, hauxe erantzuna: “Debekua egin behar zutenak ere zumaiairak ziren, eta horrek pixka bat gutxitu zuen debekuen kontua. Beste kontu bat izango zen kanpokoak etorri izan balira



halako erabakiak gauzatzera... Ez dut ezagutu “habla en cristiano” hori Zumaian; Donostian bai”.

Euskararekin segituz, nesken eta mutilen artean zer alde zegoen esan du: “Neskek errazago jotzen zutez gaztelaniara, eta guk, mutilok, euskara berezia hitz egiten genuen. Gure aita saiatzen zen ‘jo egin nau/jo egin dit’ formak bereizten, baina nik ez nion ulertzen zein zen aldea. ‘s’ eta ‘z’ ere ez nituen bereizten”. Aita gogoan, haren euskalzaletasunaren berri eman du: “Bazuen hiztegi bat, Lopez Mendizabalena, eta bere ustez erdarakeriak ziren hitzak marratuta zeuzkan; eta gainean idazten zuen euskara zuzenean nola behar lukeen”.

Aita marinela zuen, merkataritza ontzietan ibiltzen zen. “Sota itsasontzietan egiten zuen lan, eta azkeneko ontzia Goizeko Izarra izan zuen. Ez nuen harreman handirik izan harekin, beti kanpoan ibiltzen zelako. Gero, nik 13-14 urte neuzkala hil zen”. Egoera horretan, amak atera zuen familia aurrera: “Ez dakit nola egin zuen, denaren kargu egin zen. Dena kentzen ziguten, eta saldu egin behar ondasunak, jango bagenuen behintzat”.

Ikasketekin segitzeko aukera izan zuen, eta 13 urte zeuzkala Bilbora joan zen: “Maestria Industrial ikasi nuen, eta gero, lan faltarik ez nuen izan. Otto Holkerenean hasi nintzen Zumaian bertan, eta Donostian amaitu nuen, diskoe-txearekin hasi nintzenen”.

komiki euskaratu genituen. Ikusten nuen jendeari gustatzen zitzaiola, eta euskaraz ere egon behar zuela pentsatu nuen. Hitz egin nuen Goscinyrekin, egileetako batekin, eta baimena eskatu nion euskaraz argitaratzeko. Pentsatuko zuen erotuta nengoela, baina tira, baietz esan zidan, eta urtean bost ateratzeko aukera eman zidan. Hamar egin nituen bi urtean”.

1981ean amaitu zen Herri Gogoa, baina orduan ere, antzerkiarekin gertatu zitzaion bezala, euskal kultura sustatzeko lanean segitu zuen. Gipuzkoako Foru Aldundian egiten zuen lan orduan, Kultura departamenduan: “Dantzak antolatzen nituen, txistularien aldizkaria bultzatu genuen, bertsolariekin harremana ere banuen, eta zer eskatuko eta euskarazko telebista sortzeko proiektua egiteko eskatu zidaten”. 70eko hamarkada erdialdera iritsia zen ordurako.

“Hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa izan zen telebista sortzea-rena, eta etxea ere aukeratu zuen. Joan-etorri batzuk egin genituen harantz eta honantz, beste leku batzuetako telebistak nola ari ziren ikusteko eta ikasteko. Suitzara joan ginenon artean Juanito San Martin ere bazegoen”. Italian ere izan zen Beobide, eta Silvio Berlusconiaren aitarekin bildu ere bai: “Telebista bat jarrita zeukaten, eta harekin ere jardun nuen”. Hara eta hona, hemen bertan ere bazen zeregina: “Eskolak sortu nahi genituen kazetari-entzat, teknikari-entzat eta abar, Donostian eta Gasteizen, Lakua inguruan. Jendea behar genuen euskaraz aritzeko, eta orduan, baziren Loiola irradian, Arrate irradian eta Segura irradian, baina ezin genizkien haiek kendu, batere gabe geratuko lirateke eta”.

Mamitzen joan zen telebistaren asmoa, eta gauzatu zen egitasmoa: Euskal Telebista. 1982an hasi zen emititzen, baina aurretik, Hanburgora joan ziren, gehiago trebatzera: “Autobusa antolatu genuen, eta kazetariak, teknikariak eta kameralariak joan ginen. Itzuli ginenerako ia bukatuta zegoen Durangoko egoitza”. Egitasmoa gauzatzeko, hemen bertakoen artean ez zuten arazo handirik izan, “euskaraz tartean bazen, ederki konpontzen ginelako denok”. Hasi zen

bada ETB, baina gerora, kolpea hartu zuen Beobidek: “Euskara hutsean zela uste nuen nik, baina etorri zen Jose Maria Gorordo, eta gaztelaniazkoa ere jarri zuen. Zertarako? Gaztelaniaz telebista ikusi nahi duenak badauzka Espainia-koak!”. Hortxe du arantza sartua, baita ikastolekin ere: “Hanka sartu zuten publiko bihurtu zirenean, euskarak ikastolak behar dituelako”.


ETBn aritu zen lanean 25 urtez, “produktore, nirea ekin eta ekin izan delako beti, besteei bitartekoak jarri

“Hitz egin nuen Goscinyrekin, Asterixen egileetako batekin, euskaratzeko baimena eskatzeko”

beren lana egiteko”. Duela hamar urte jubilatu zen, eta orain lasai bizi nahi du: “Lasai bizi nahi dut, baina ez da erraza”. Bertatik bertara ari da segitzen berak lanbide izan zituen arlo guztiak, eta hausnarketa hau egin du: “Euskal kulturak laguntza behar du, eta hori ezin da ukatu. Eta Eusko Jaurlaritza honekin gauzak galtzen ari gara”. Berriz gogoratu du 60ko hamarkada: “Zenbat sormen zegoen!”. Berak jarri zizkien sortzaileei sormenerako baliabideak, eta lan handia egin zuen. Nekeza ere bai zenbaitetan, garai latzak zirelako. Kartzelan ere egon zen: “1962an izan zen, eta urte eta

erdiz eduki ninduten preso. Donostian anarkistek bonba bat jarri zuten Francoren kontra, eta hurrengo egunean nire etxean ziren poliziak. ETaren lehen kolpea ere gertatu zen, trenarena, baina kanpoan nintzen orduan. 1962an eta urtebetera, fetxa berean, etorri ziren eta atxilotu egin ninduten. Consejo de Guerra egin zidaten, eta kartzelara”. Ezkutuan ibili beharra zegoen askotan, eta *Zeruko Argian* idatzi zituen testuetan, esaterako, ezizena erabili zuen: Joseba Agirre. “Iñaki Joseba naiz, eta bigarren abizena Agirrezabalaga daukat, eta hortik hartu nuen goitizena”.

Errepresio bideak gogoan, Fragak esaten zuena ekarri du hizpidera, euskaraz eta euskal kulturaz galdetzen ziotenean: “Por encima de mi cadaver” esaten zuen, baina guk gauzak egin egin genituen, ekin eta ekin”. Horixe izan baita Iñaki Beobideren jarduna. Ekin eta jarrai, herriaren gogoia betez. ■



Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi



Laster egingo
dugun bileran azalduko
dizkizuegu ateratako ondorioak



Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611

ABENDUA-URTARRILA

ERAKUSKETAK

Abenduaren 22tik urtarrilaren 8ra ANTON EGIGUREN pintura erakusketak, Alondegian.

IKASTAROK

Informazioa eta izen-ematea :
943-861056 – kulturetxea@zumaikoudala.net - Alondegia kultur etxea.

DEIALDIK

Gabonetako XII. Erakusleihu lehiaketa – Informazioa, Turismo bulegoan
943-14 33 96.

Abenduak 13tik 18ra

LANKIDETZA ASTEA Alondegian (ikus egitaraua).

Abenduaren 20an hasita "Irakurri matte" irakurle taldea Uxue Alberdiren eskutik.

Urtarrilaren 28an hasita literatur tailerra Yolanda Arrietarekin.

ABENDUA

Larunbata, 17

Egun osoan, Zumaia Elkarteak antolatuta, Braderie. Arratsaldean, Alondegian, LANKIDETZA ASTEAREN barne: "Eskularen Tailerra".

Igandea, 18

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: "Deabru Beltzak taldearen "GABON KONTUK".
17:00etan GABON JAIALDIA izango

da Maria eta Jose Ikastetxeko aretoan. Jaialdain Ikastetxeko haur eta ikasle guztiek parte hartuko dute.

Ostirala 23

Iluntzean, San Pedro Abesbatza eta Zumaia Musika Bandaren eskutik Gabonetako Kontzertua.

Larunbata, 24

9:00etan Lubaki kiroldegian, areto futbol azkarra.

Eguerdia bitartean, "Niño Jesusen Eskean".

15:30ean Gabon Koruaren saioa kalez kale.

17:00etan Aita Mari aretoan, Gabon Abestien lehiaketa Erkibe kultur elkarteak antolatuta.

18:30ean Jaiotza ikuskizuna.

Asteartea, 27

Goizean, Alondegiko parean, Zumaia Elkarteak antolatuta gaztetxoentzat postre lehiaketa.

Asteazkena, 28

18:30ean Aita Marin, haur antzerkia: Txotxongilo taldearen "GALTZAGORRIAK".

Osteguna, 29

18:00etan, Zumaia Elkarteak antolatuta, Diskoteka eta dantza lehiaketa.

Ordu berean, Beheko plazako zaharren egoitzan Xake txapelketa.

22:00etan zine forum "Los chicos están bien".

Ostirala, 30

16:00etan hasita Zumaia



Elkarateak antolatuta, herrian zehar, "Dantza Kalean".
17:30ean Alondegiko haur liburutegian, Ipuin kontaketa.
Larunbata, 31
Binakako lasterketa. 12:15ean, gazteak eta 12:30ean, helduak.

URTARRILA

Asteartea, 3

17:30ean Alondegiko haur liburutegian, Ipuin kontaketa.

Asteazkena, 4

18:30ean Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea.

Osteguna, 5

18:00etan hasita, Errege Zamalkada.

Osteguna, 12

22:00etan zine forum.

Astelehena, 23

18:00etan Forondan, Hitzaldia: "Haur txikien garapen emozionala".
Haurreskolek eta Udalak elkarlanean antolatuta.

Osteguna, 26

22:00etan zine forum.

Ostirala, 27

22:00etan Aita Marin, antzerkia: TXINTXETA taldearen "BODOLOGUAK".

Igandea, 29

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: KONTAKATILLU taldearen "Katillukadak".

zapateixa
Konponketak

Mitane Ukanaga

Oinetako eta erropak konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaia • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela
Jaietxea
Kalategia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ZUMAI
AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- **GURE HELBURUA:**
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA
OPARIK

Angelu Sorana, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 657



AMAIERA

Boligrafoa neke itxurarekin gerturatu zait.

—Ezin dut gehiago! —ziurtatu dit berehala—. Agortuta nago!

—Ni ere bai —onartu diot.

—Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten —gaineratu du—, eta laburrak izan arren jada ez zait tintarik gelditzen.

Kexua espero nuen, ezer ez baita betirako. Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegin bat eskatu diot:

—Lagundu ipuinak zenbatzen.

Halaxe egin dugu. Banan-bana zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte.

—Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion nire buruari —esan diot orduan boligrafoari—. Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko?

—Zuri zer iruditzen? —erantzun dit harro, nire eskura salto eginez.

Pentsakor gelditu naiz une batez, azken ipuina izango denaren gaia erabakitzeko. Berehala ohartu naiz, ordea, ez dela oso erabaki zaila, eta boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz azken ipuinaren titulua idatzi dut:

AMAIERA



139€

PANASONIC Argazki Kamera
DMC FS18
• 200M x 4
• 16 megapixel

**ZORROA ETA TXARTELA
OPARI**

GABON OPARIRAKO ESKAINTZAK



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

*Endañeta: aurrena arreta,
gero salmenta.*

Eguberri On!

189€



ROOMBA Aspiragailu Robota

FAGOR
Kapsuladun
Kafetera
• No Frost
• Inoxidablea
• 200 x 60



49€



Ardantzabide



100 x 40 cm edo 85 x 40 cm
240 cm arte luza daiteke!!!



Braderie

Dendak kalean

Zumaia

ABENDUAK

17

LARUNBATA

Ordutegia

10:00-20:00

Puzgarriak haurrentzako

*Beheko plazan, Amaiko plazan,
Kantauri plazan eta Victoriano Arraten.*

ESKAINTZA BEREZIAK!!

Eskaintza eta deskontu ugari!!!

Parte-hartzaileak:

- Adur
- Algorri lurrindegia
- Ana etxeko zapiak
- Arruti
- Begoña Agirrezabalaga
- FLYSCH
- Gofi
- Idoia arropa denda
- Ipotxak
- Iruhitz ileapaindegia
- Izaskun IZK
- Kulunk
- Kuttun
- Maite Irureta
- Marisa oinetakoak
- Pinturas Rubio
- Piratetxea
- Sorginak
- Spot
- Trikuharri
- Ufo
- Xirula



II. BIKO LASTERKETA MISTOA



NESKA
edo
MUTILA

+



NESKA
edo
MUTILA



NESKA
edo
MUTILA

+



NESKA
edo
MUTILA



NESKA
edo
MUTILA

+



NESKA
edo
MUTILA

abenduaK

31

gazteak 12:15ean
helduak 12:45ean

Izen-emateak Doan

- Turismo bulegoan
943 14 33 96
- Lusakiri kiroldegian
943 86 20 21

Epea: AbenduaK 30

Sari banaketak:

13:30ean Eribera kalean,
Gabanetako erakusleko lasterketaren saria
eta Urteko Merkataritza eta Ostalaritza enpresaren
saria ere bertan banatuko dira.
Sariak: kirol materiala eta opari txarretan
zozkita.

**Goziz parte hartze txarritza pinteak eta saria
dastagai.**



zumartian